



**DERIOKO UDAL KIROLDEGIKO FITNESS GELARAKO EKIPAMENDUA
ALOKATZEKO, HORNITZEKO ETA DISEINATZEKO GARAPEN
FUNZIONALERAKO PROIEKTUAREN PLEGU TEKNIKOA.-**

Esp.: 001/2015

1.- KONTRATUAREN XEDEA.-

Kontratu honen xedea da Derioko kiroldegiko fitness gelarako beharrezkoa den kirol-ekipamendua definitzeko, diseinatzeko eta alokatzeko proiektu teknikoa esleitzea. Proiektu honek lan-zirkuitu eta ekipamendu osoaren eremu-banaketa eta mailakako erabilera kontzeptua deskribatu beharko ditu.

Halaber, proiektua gauzatzeko behar den ekipamenduaren hornidura jaso beharko du: ekipamendu kardiobaskularra, muskulazio-ekipamendua, "kableduna" eta pisu askea, indoor zikloko bizikletak, hori guztia aldez aurreko kokapen eta funtzionamenduarekin.

Kontratu honen xedean sartzen dira, era berean, hainbat lekutako elementu banatzaileak (manparak edo beste soluzio batzuk), bitarteko materialak eta osagarriak, programak, banakako fitxak, errutina biltegirako fitxategia, beharrezkoa balitz. Gelako gutxieneko elementuak eta ezaugarriak 1. eranskinean sartuko dira.

2.-. KONTRATUAREN IRAUPENA ETA PREZIOA.-

Kontratuak 4 urteko iraupena izango du. (2015eko urtarrilaren 1etik 2019ko abenduaren 31ra)

Hileko gehienezko errenta, hornituko den ekipamendurako 2083,30 eurokoa izango da, % 21eko BEZa barne.

Erakunde lizitatzailleek hornidura osoa lizitatuko dute. Ez da loterik onartzen. Erakunde bakoitzak proposamen bakarra aurkeztu ahal izango du.

Hila amaitzen denean fakturatuko da, faktura aurkeztu ondoren. Banku-transferentziaren bidez ordainduko da (hirugarren pertsonen edo erakundeen fitxa atxiki ondoren), erregistratzen denetik 30 egunera.

3.- KONTRATUA OSATZEN DUTEN AGIRIAK.-

- 1 Honako agiri hauek osatzen dute kontratua:
- 2
- 0 - Klausula administratiboen plegua.
- 1 - Klausula teknikoen plegua.



4.- ALOKAIRUAREN IRISMENA.-

Enpresa edo erakunde lizitzailearen betebeharrak

Enpresa edo erakunde lizitzaileak konpromisoa hartuko du Derioko Udal Kiroldegiari 1. eranskinean zehaztutako ekipamendu kardiobaskularra eta muskulazio-ekipamendua alokatzeko, bai eta araubide honetan utzitako makina horiek guztiak garraiatzeko, instalatzeko, martxan jartzeko, egoera egokian mantentzeko, horiei edozein motatako konponketak, aldaketak eta berrikuspenak egiteko eta gastuak bere gain hartzeko ere.

- Ekipoen jabetza eta titulartasuna.-

Erakunde kontratistari dagokio ekipoen jabetza eta titulartasun osoa.

- Erabilera, mantentze-lanak eta konponketak.-

Derioko Udal Kiroldegian, erabiltzaileek ardura handiz zainduko dituzte ekipoak. Egoki erabiliko dituzte, eta egoera onean mantenduko dituzte, enpresa esleipendunak horiek erabiltzeko eta mantentzeko emandako argibideei jarraikiz.

Bestalde, enpresa esleipendunak konpromisoa hartuko du alokairuak irauten duen bitartean ekipo horiek behar bezala funtzionatzen dutela bermatzeko. Horretarako, aldizkako berrikuspenak egingo dituzte mantentze-lanetako zerbitzu teknikoek.

Konponketa, aldaketa (gutxienez tapizeria-aldaketa 1 elementuko edo beharrezkotzat jotzen denean), berrikuspen eta gastu guztiak kontratistaren kontura egingo dira. Bere gain hartuko du edozein konponketa edo aldaketa (osoa zein partziala), kontratuak irauten duen bitartean Derioko Udal Kiroldegiak ekipoek emandako zerbitzua ziurtatua izan dezan.

Derioko Udal Kiroldegiak konpromisoa hartuko du enpresa edo erakunde esleipendunari ekipoen funtzionamenduan akats edo matxurarik izanez gero, horren berri emateko, eta ez konpontzeko, enpresa edo erakunde esleipenduna izango baita konpontzeko baimena izango duen bakarra.

- Alokairuaren berezitasunak, galera, kalte eta aseguru-iek dagokienez.-

Erakunde esleipendunak bere gain hartuko ditu ekipoen kalte- eta galera-arrisku guztiak (osoa edo partzialak), edozein dela ere arrazoia, ustekabeko edo ezinbesteko arrazoiak barne.

Erakunde lizitzaileak aseguru-poliza bat izango du, aseguru-konpainiek eskaini ohi duten estaldura zabalarekin, gutxieneko estaldura 300.000 €-koa izanik.



Aipatu poliza horrek klausula bat izango du, eta bertan zehaztuko da aseguru-etxeak zuzenean ordainduko diola Derioko Udal Kiroldegiari ondasun kontzeptuaren kalte-ordaina, onuraduna izango baita.

Asegurua indarrean egongo da, harik eta alokairua amaitzen denean enpresa edo erakunde lizitatzailerari ekipoak itzuli arte.

5.- AGIRI TEKNIKOAK.-

Agiri guztiak euskarri informatikoan eta paperean entregatuko dira.

Proiektuaren agiri guztien jatorrizkoa entregatuko da: makineria-zerrenda, eskaintzen diren ekipo eta bitarteko osagarriak, zehaztasun tekniko eta ezaugarriak, materialak eta abar eta eguneroko mantentze-lanetarako agiriak.

6.- BALDINTZA OROKORRAK.-

Ekipoek egoki funtzionatzen dutela ziurtatzean, Derioko Udal Kiroldegiak harrera formalizatuko du akta bidez, eta hor, egindako probak egiaztatuko dira, hala badagokio. DUKari iruditzen bazaio ekipoek ez dutela betetzen lizitazio-proposamena, gelditu egingo da prozesu osoa.

Erakunde esleipenduna ekipoek izan ditzaketen kalte, galera eta aldaketa guztien erantzule izango da, harrera-akta formalizatu arte, arazoiak udal zerbitzuei egoztekoak ez badira, behintzat.

7.- DERRIGOR BETE BEHARREKO BALDINTZAK.-

Kirol ekipamenduak (kardiobaskularrak, muskulaziokoak eta bestelakoak) egonkortasun nahikoa izango du lurzoruan edo horman loturarik jarri gabe jartzeko (betiere, DUKarekin koordinatuta eta kasuaren arabera).

Elementu bakoitzaren prezioa zehaztu beharko da. DUKak kontratu hau esleitzen denetik urtebete baino lehenago makina gehiago eskuratu nahi baditu eskaintako geletarako edo berak kudeatzen duen beste baterako, enpresa esleipendunak errespetatu egin beharko du esleipenaren prezioa.

Horrez gain, bermatu egin beharko du Euskal Autonomia Erkidegoan laguntza-zerbitzu teknikoaren delegazio bat izatea.

Ez da eskaintzarik onartuko, ezbeharren bat gertatuz gero mantentze-zerbitzuan erantzunaren zain 48 ordu baino gehiago itxaron behar bada, edo osagarriak ordezkatzeko 96 ordu baino gehiago itxaron behar bada.



8- BERMEA.-

Ez da onartuko 48 hilabete baino gutxiagoko bermea aurreikusten duen eskaintzarik, ezta ekipamendua funtzionatzen hasi eta 12, 24 eta 36 hilabetera ekipamendu guztiak berrikustea eskaintzen ez duenik ere.

Eskainitako berme osoaren iraupena zehaztuko da. Berme horretan, garraioa, eskulana eta bestelakoak sartuko dira. Zerbitzu teknikoaren kokapena, matxuren arreta-ordutegia, erantzunen denborak, konpentsazio-neurriak eta DUKarekin harremanetan egongo den pertsonaren datuak emango dira.

9.- PROZEDURA ETA ESLEITZEKO MODUA.-

Kontratu hau prozedura irekiaren bidez esleituko zaio eskaintza onuragarriari. Horretarako, honako irizpide hauek hartuko dira kontuan:

A) FORMULA BIDEZ ZENBATU EZIN DIREN IRIZPIDEAK (gehienez ere 45 puntu).

Emango den zerbitzuaren deskripzio-memoria: gehienez ere 45 puntu, jarraian agertzen den moduan banatuta:

A) Eskainitako makinen deskripzioa: **gehienez ere 30 puntu.**

ZEHAZTAPEN OROKORRAK:

- A.- Diseinu ergonomikoa: Erabiltzaileari materiala eskura izatea, egokitzea, programatzea eta erabiltzea erraztea eta bere ezaugarrietara egokitu ahal izatea.
- B.- Erabiltzaileari informazioa ematea: gauzatuko den jardueraren, lan-profilaren, energia-eskakizunaren, bolumenaren, intentsitatearen eta abarren inguruan.
- C.- Segurtasuna. Egungo Europako eta nazioko araudia betetzea, entrenatzeko aparatuen segurtasunari eta funtzionamenduari dagokionez. Erabileraren inguruko ohartarazpen eta segurtasun seinaleak.

OHARRA: Lizitatzailleek lehiaketaren xede diren makinen ezaugarri teknikoak buruzko agiriak aurkeztu behar dituzte, horiek berariaz definituta gera daitezen. Informazio hori aurkeztu ezean, ezarritako ezaugarri teknikoak betetzea ekarriko du.

EKIPAMENDU KARDIOBASKULARRAREN ZEHAZTAPEN TEKNIKOAK.

1.- KORRIKA EGITEKO ZINTA ELEKTRONIKOA.-

-Motorra gutxienez 4,5 cv-koa izango da.

-Abiadura: 0-22 km/ordu.



- Gutxieneko malda: % 0-15.
- Bihotz-erritmoa kontrolatzea esku-sentsorearen bidez (pultsometro polarrarekin bateragarria).
- Gutxienez 7 entrenamendu-programa: kaloriak, bihotz-maiztasuna, denbora, distantzia, abiadura eta abar adieraziko ditu (pantailan agertuko da informazioa). Erabiltzaileak profila konfiguratzeko programak. Kontrol-panel elektronikoa.
- Larrialdietarako botoia eta geratzeko sistema automatikoa.
- Tapizaren gutxieneko azalera: 50x150cm.
- Alboko babesgarriak zintaren bi aldeetan, estriboak, labain-eragozleak.
- Mp3 eta halakoentzako konexioa.
- Talkak xurgatzeko sistema.
- Garraiatzeko gurpilak.

2.- ELIPTIKA.-

- Autoelikadura-sistema eta balazta elektromagnetikoa, sarerako konexiorik gabe.
- Pedal ez-labaingarriak.
- Uhal bidezko transmisioa.
- Gutxienez 22 erresistentzia-maila eta entrenatzeko 25 programa. Kontrol-panel elektronikoa.
- Bihotz-erritmoaren sentsorea, sistema polarrarekin bateragarria.
- Oinkaden distantzia: gutxienez 45 cm.
- Ez labaintzeko materialeko pedalak.
- Garraiatzeko gurpilak.

3.-BIZIKLETA BERTIKALA.-

- Balazta elektromagnetikoa, sarerako konexiorik gabe.
 - Uhal bidezko transmisioa.
 - Gutxienez, entrenatzeko 30 programa. Kontrol-panel elektronikoa.
 - Bihotz-erritmoaren sentsorea, sistema polarrarekin bateragarria.
 - Garraiatzeko gurpilak.
- ## -ARRAUNA.-
- Balazta elektromagnetikoaren sistema. Gutxienez 15 intentsitate-maila.
 - Entrenatzeko 10 programa baino gehiago. Kontrol-panel elektronikoa.
 - Uhal bidezko transmisioa.
 - Bihotz-erritmoaren monitorizazioa.
 - Garraiatzeko gurpilak.
- ## -INDOOR ZIKLOKO BIZIKLETA.-
- Balazta-sistema erregulazioarekin eta larrialdietarako blokeoa.
 - Uhal bidezko transmisioa. Inertzia-bolantea: gutxieneko pisua, 18 kg.
 - Garraiatzeko gurpilak.
 - Pedal mistoak.
 - Altzairuzko xasisa. Korrosioaren kontrako tratamendua alde mugikor guztietan.

MUSKULAZIORAKO EKIPAMENDUAREN ZEHAZTAPEN TEKNIKOAK.

.-Erabiltzaileei ematen zaien informazioan kontuan hartu beharko da berdintasunean oinarritutako hizkera. Irizpide hori bera erabiliko da irudiekin..

.-Testua euskaraz ere jarriko da.



- .- Makinetan lan egiteko lekutik irakurtzeko moduko informazio-panelak jarriko dira. Horietan erabiltzeko argibideak jarriko dira, azalpen diagrama eta ariketan parte hartzen duten muskuluak barne.
- .- Ekipamenduak aukera emango du mugimendu gidatuak eta libreak egiteko, makinak berak edo norberak (polea edo kable bidez) egonkortutakoak, eta beso/hankak independenteki mugitzeko aukera emango du (makina isolateralak).
- .-Ekipoek erresistentzia handiko altzairuzko txirikorda-kableen bidezko transmisioa izango dute, nylon eta altzairuzko xaflez estalita. Altzairuzko egitura, gutxienez 4mm-koa, ST-37/40 kableak gutxienez 6mm-koak izango dira.
- .-Makina bakoitzaren lan-kargak kirolari hasiberriari edo aurreratuari egokituta egongo dira.
- .-Xasisaren egitura eliptikoa edo zirkularra izango da.
- .-Material guztiak egonkortasun nahikoa izango du berez, hau da, lurzoruan ainguratu gabe. (kasuaren arabera)
- .-Xasis eta tapizetan kolore eta itxura aukeratu ahal izango da.
- .-Eserlekuak eta bizkarraldeak dentsitate aldakorrekoak izango dira, aglomeratu poliuretanoz egindakoa eta larru imitazioz estalia, poliester, poliuretano eta PVC osagarriekin, izerdiaren ondorioz ez hondatzeko erresistentzia dutenak eta anatomikoki egokituak.
- .-Egokitzapenak erabiltzaileak berak erraz ikustekoak izango dira. Karga aukeratzeko gailua lan-planoarekin lerrokatuta egongo da, eroso erabiltzeko.
- .-Espeka independenteak izango dira goi treneko makinetan mugimenduetarako, baita ibilbide konbergenteak ere, eta lan-karga erresistentzia aldakorraren arabera egokitu ahal izango da.
- .-Diseinu antropometrikoa eta biomekanikoa izango dute, behar bezala eta modu seguruan erabiltzen dela bermatzeko.
- .-Oinarria gomazkoa izango da, egitura babesteko eta makinetan egon daitezkeen irristadak saihesteko.
- .-Egitura indartuta egongo da, egituraren osotasuna ahalik eta handiena izan dadin eta babesa areagotzeko.
- .-Heldulekuak goma ez xurgatzailezkoak izango dira, desgastaren kontrakoak. Era berean, babestu egingo dira transmisio-elementuak, errodamenduak eta inertzia-bolanteak.

B) Proposamen teknikoan eginiko hobekuntzak: **gehienez ere 15 puntu.**



- Irudiaren eta estetikaren, ekipamenduaren eta gelaren inguruan eginiko hobekuntzen deskribapena: gehienez ere 5 puntu.
- Ekipamendu informatikoan eginiko hobekuntzak: Errutinak eta ariketak kudeatzeko edo gela kudeatzeko softwarea: gehienez ere 3 puntu.
- Makinak minusbaliatuentzat egokitzea: gehienez ere 3 puntu.
- Eskainitako ekipamendua erabiltzeko prestakuntza-programak: gehienez ere 4 puntu.

B) FORMULA BIDEZ ZENBATU AHAL DIREN IRIZPIDEAK (gehienez ere 55 puntu).

Eskaintza ekonomikoa. Eskaintza ekonomikoa balioesteko honako hauek hartuko dira aintzat:

55 puntu emango zaizkio eskaintza ekonomiko baxuenari, eta gainerako eskaintzetan formula hau aplikatuko da:

$$\text{Puntuak} = \frac{\text{Eskaintza onenaren prezioa}}{\text{Baliosteko eskaintzaren prezioa}} \times 55$$

Gehienez ere 100 puntu lortu ahal izango dira.

10.- EPEAK ETA ENTREGATZEKO BALDINTZAK.-

.-Hornidura gehienez ere 15 egun naturaletan egingo da, esleipena administrazio-agirian (kontratua) formalizatu eta hurrengo egunetik zenbatzen hasita.

.-Entregatzea eta instalazioa kiroldegian egingo da, plegu honetako lehen klausulan zehazten den bezala, eta enpresa edo erakunde esleipendunak bere gain hartuko ditu garraiatzeak, instalatzeak eta martxan jartzeak ekartzen dituen gastuak.

.-Ekipamenduak instalatzean, instalazioetan dauden pertsonen segurtasuna bermatuko da. Horretarako, indarrean dagoen araudiaren arabera egokitzen jotzen diren babesneurriak hartuko dira.

.-Enpresa esleipendunak bere gain hartuko ditu instalazioan gerta daitezkeen kalteak, enpresako langileek eragindakoak badira, bai eta konpartimentazio-birbanaketa egitea, hormak edo trenkadak birmoldatzea, ur-kanalizazioa, hoditeria elektrikoa, etab. Horrez



gain, bere gain hartuko ditu sortutako hondakin guztien garbiketa eta hondakinak hondakinen biltegira eramatea, indarrean dagoen araudiaren arabera.

.-Entregatu baino zazpi egun lehenago, egingo diren lan guztiak, eta datak arduradunarekin koordinatuko dira. Ahal bada, makineria asteburuan instalatuko da.

.- Muntaketaren faseak azalduko dira, eta zehaztu egingo da zein bitarteko tekniko eta langile arituko diren fase bakoitzean, instalazio osoa jartzeko epea zein den, eta instalazioak zenbat iraungo duen.

.-Enpresa esleipenduna arduratuko da biltegira edo DUKak kudeatutako beste zentro batzuetara garraiatzeaz eta instalatzeaz, bai eta baztertutako elementuak eramateaz ere.

.-Hornitutako ekipoen alokairuak 48 hilabete (4 urte) iraungo du, ekipoen harrera-akta sinatzen den egunetik zenbatzen hasita.



1. ERANSKINA. GELAKO ELEMENTUAK ETA DERRIGOR BETE BEHARREKO BALDINTZA OROKORRAK.

DERIOKO KIROLDEGIA

FITNESS GELA

MAKINA KARDIOBASKULARRAK

	Kopurua
KORRIKA EGITEKO ZINTA	6
BIZIKLETA bertikalak	4
CICLO INDOOR BIZIKLETA	35
ELIPTIKAK	6
ARRAUNA	2

MUSKULAZIOA

	Kopurua
PLAKA KARGAK	
ARRAUNA ESERITA BULARRA	1
PRESS SORBALDA KONBERGENTEA	1
KOADRIZEPS LUZAPENA	1
FEMORALA ETZANDA	1
MULTIALDAKA	1
POLEA ALTUA (BULAR TIRALDIK)	1
DISKO KARGAK	
MAX RACK	1



ESERLEKUAK ETA OSAGARRIAK	
ESERLEKU INKLINATUAK	1
ESERLEKU LAUAK	2
POSIZIO ASKOTAKO ESERLEKUA	3
SCOT ESERLEKUA	1

Derion, 2015ko urtarrilaren 10ean.

Erakunde autonomoko zuzendaria